



AKTA

Espediente-zk.:	Kide anitzeko organoa:
OSOKO BILKURA/2024/10	Udalbatza

BILKURAREN DATUAK	
Deialdi mota	Ohikoa.
Eguna	2024ko irailaren 20a.
Iraupena	17:00etatik 18:15era
Tokia	Osoko bilkuren aretoa
Udalburua	Javier Gorbeña García
Idazkaria	Ziortza Guinea Gutiérrez

BILKURARA BERTARATU DIRENAK		
NAN zk.	Izen-abizenak	Bilkuran izan da
18593219L	AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ	BAI
16032037W	CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA	BAI
18598103G	ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN	EZ
72748486S	IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LÓPEZ DE IPIÑA	BAI
30641952H	JAVIER GORBEÑA GARCÍA	BAI
72841412K	MAITE COBO BARCALA	BAI
72831885Q	MIKEL ISASMENDI TXURRUKA	BAI
72841383S	XABIER NAFARRATE CADIÑANOS	BAI
53980281V	MAIALEN BERGARA SAEZ DE CAMARA	BAI

Udalburuak bilkurari hasiera eman dio, idazkariak egiaztatu ondoren organoa balioz eratu dela, eta eguneko aztergaiak aztertzeari ekin zaio.

A) EBAZPEN-ZATIA





Onestea aurreko bilkurako akta, 2024ko uztailaren 2koa.

Alkate jaunak galdetu du Udalbatzako kideren batek oharrrik egin nahi dion 2024ko uztailaren 22ko bilkurako aktari. Akta deialdiarekin batera banatu zen.

Inork ez du oharrrik egin, eta, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 91.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, akta onetsi da

440/2024 espedientea. MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA zinegotziak karguaz jabetzea.

Aldekoa	Bozketa mota: ohikoa/aho batez
----------------	---------------------------------------

Udalak, 2024ko uztailaren 22ko osoko bilkuraren ohiko bilkuran hartutako erabakiaren bidez EDUARDO LORZA GARCIAK, arrazoi pertsonalak zirela eta, Udaleko zinegotzi karguari borondatez egindako uko egitearen berri hartzea erabaki zuen, Toki-korporazioen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuaren 9.4 artikulua betetzeko.

Udalak Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatu zion 2023ko maiatzaren 28an egindako udal-hauteskundeetako zerrendan hurrengo zen MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA andrearen egiaztatutunak bidaltzeko. Egiaztatutunak 2024ko abuztuaren 19an jaso zituen Udalak..

Hori guztia kontuan hartuta, Udalbatzak ERABAKI DU:
Onestea MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA andreak Udaleko zinegotzi karguaz jabetzea, EDUARDO LORZA GARCÍAREN borondatezko uko egitearen ondoren hura ordezkatzeko.

Eta horretarako, legez ezarritako prozedurari jarraikiz, alkateak MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA andreari honako hau galdetu dio:

“Zin dagizu edo agintzen duzu, zure kontzientzia eta ohorearen izenean, zintzo beteko dituzula Zigoitiko Udaleko zinegotzi karguaren eginbeharrak, Erregearekiko leialtasunez, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzula, Estatuko funtsezko araua den aldetik?”. (Kargu edo funtzio publikoek jabetzeko formula arautzen duen apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuaren 1. artikulua).

MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA andreak honako hau erantzun du:**Euskal Errepublikak lortu arte, legeak hala behartura zin egiten dut.**

Zinegotzi karguaz jabetu ondoren, MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA andrea bilkurara elkartu da.

76/2024 espedientea. 2024 urtean kontzejuetan obrak egiteko dirulaguntzak behin betiko emateko irizpena.

Aldekoa	Bozketa mota: Izenduna Alde: 4; aurka: 0; abstentzioak: 4
----------------	---

Aldekoak	JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV) CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA (EAJ- PNV)
----------	--





	MAITE COBO BARCALA (EAJ- PNV) IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV)
Aurkakoak	-
Abstentzioak	AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU) XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU) MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU) MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA (EH BILDU)

Mikel Isasmendi Txurruka zinegotziak azaldu du EH BILDU udal-taldea abstenitu egingo dela, plaka fotovoltaikoak instalatzeko obra Gopegiko Kontzejuak sustatu duelako, bizilagunen batzarrean akordioa onartzearen bidez, eta uste dute diruz lagundu beharko litzatekeela, gizarte- eta ingurumen-proiektua izateaz gain, energia-komunitate bat ezartzea ere badelako.

Idazkariak azaldu du dirulaguntza hau emateko prozedura arautua dela, eta oinarriak udal-ordenantzaren bidez arautzen direla. Azaldu duenez, energia-komunitate bat ezartzeko plaka fotovoltaikoak jartzea ez dago dirulaguntza honek finantzatutako jardueretako batean ere. Esan du, diruz lagun daitekeen xedea ez betetzeaz gain, dirulaguntzaren eremu subjektiboa ere ez dela betetzen; izan ere, energia-komunitateak, obraren benetako onuradunak, ez daude definituta dirulaguntza honen onuradun gisa.

Idazkariak azaldu du ezen, hirugarrenek interes publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak egiten badituzte eta jarduera horiek udalen eskumenen esparruan sar badaitezke (hala nola energia-komunitateak eratzea), Udalak sustapen-jarduera egiteko aukera duela, xede horretarako dirulaguntzak araututa. Hala ere, Udalak gaur egun ez dauka tresna hori.

Alkateak erabaki-proposamena bozkatzeko aurkeztu du, eta gehiengoz onetsi da. Honela dio hitzez hitz:

Aztertu dira udalerriko kontzejuek obrak egiteko 2024 urteari dagokion dirulaguntza deialdiaren babesean eskatutako dirulaguntzak. Deialdia 2024ko urtarrilaren 29ko 2024-0036 Alkatezaren Ebazpen bidez onartu zen.

Hamazazpi dirulaguntza eskabide aurkeztu dituzte honako administrazio batzar hauek: Acosta/Okoizta, Buruaga, Eribe, Gopegi, Manurga, Murua, Olano, Ondategi eta Zestafe.

Aztertu da 2024ko ekainaren 28ko osoko bilkuraren erabakia, dirulaguntzak behin-behinean emateko proposamena onartzen duena eta 10 eguneko epea ematen diena kontzejuei egoki irizitako alegazioak aurkez ditzaten.

2024ko uztailaren 9an, Gopegiko Administrazio Batzarrak idazki bat aurkeztu zuen autokontsumorako instalazio fotovoltaikoko obretarako dirulaguntza ukatzeko proposamenari buruz, honako alegazio hauekin:

1. Obrak Gopegiko Kontzejuaren batzarrean onartu zirela baiesten du, eta Administrazio Batzarrak berak eskatu zizkien aurrekontuak enpresa instalatzaileei, bai eta finantzaketa bilatzen duen pertsonari ere. Egitate horiek egiaztatzen dute Kontzejua dela obraren sustatzailea.

Aurkeztutako alegazioa ezetsi egin behar da, honako arrazoibide hauetan oinarrituta:

1. Kontzejuei dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantzaren 1. artikularen arabera, kontzejuek sustatutako obrak diruz lagunduko dira, baldin eta kontzejuek oinarritzko zerbitzu publikoak garatzeko eta hiritarren bizi-kalitatea hobetzeko sustatzen dituzten lanak badira, 1. taldearen barruan diruz lagun daitekeen obra gisa zehazten badira eta lehendik dauden kontzeju-eraikinen energia-efizientzia hobetzeko obrak badira.
2. Udal arkitektoak 2024ko ekainaren 12an egindako txostenaren arabera, Gopegiko





Administrazio Batzarrak eskatutako autokontsumorako instalazio fotovoltaikoaren obra 455 Wp-eko 297 panelek osatzen dute, eta horien bidez guztira 135.135 Wp lortzen dira. Potentzia hori kontzeju-ekipamenduek behar dutena baino askoz handiagoa dela uste da.

3. Datu horiek aintzat hartuta, ondorioztatzen da energia elektrikoaren ekoizpen horren azken xedea ez dela Gopegiko kontzejua bera, eta, beraz, obraren xede ez dela dauden kontzeju-erakinen energia-efizientzia hobetzea, baizik eta beste erabilera eta helburu batzuk. Kontzejuei obretarako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen arabera, azken horiek ezin dira finantzatu.
4. Obraren sustatzailea Gopegiko Administrazio Batzarra dela adierazten den arren, aurkeztutako memoriak ez du energia elektrikoaren ekoizpenaren azken xedea argitzen. Autokontsumorako erabiliko dela adierazten da, baina, proiektuaren tamaina kontuan hartuta, azken helburua energia-komunitate bat eratzea izan daitekeela ondorioztatzen da, eta erakunde hori ezin da dirulaguntzaren onuradun izan, ez baitago aurreikusita dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan.

Zigoitia udalerriko kontzejuei dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza espezifiko arautzailearen 6. artikuluan dirulaguntzak emateko aurreikusten den izapidearekin bat etorritz.

Kontuan hartu da dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. artikuluan ezartzen dena, dirulaguntzen publikotasunari dagokiona.

Zigoitia udalerriko kontzejuei dirulaguntzak emateko ordenantza espezifikoaren 4. artikulua aitortzen dizkion eskumenak baliatuz, Udalbatzak, gehiengoz, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA. Ezestea Gopegiko Administrazio Batzarrak 2024ko uztailaren 9an aurkeztutako alegazioa; izan ere, instalazio fotovoltaikoko obra ezin da finantzatu, ez baitu betetzen dirulaguntza arautzen duten oinarrien helburua eta eremu subjektiboa.

BIGARRENA. Onartzea Zigoitia udalerriko kontzejuei 2024ko ekitaldiko deialdiaren barruan obrak eta zerbitzuak finantzatzeko dirulaguntzak behin betiko ematea. Dirulaguntza horiek erabaki honen I. eranskinean daude jasota.

HIRUGARRENA. Onestea Zigoitia udalerriko kontzejuei 2024ko ekitaldiko deialdiaren barruan obrak eta zerbitzuak finantzatzeko dirulaguntzak behin betiko ukatzea, erabaki honen II. eranskinean jasotako arrazoiengatik.

LAUGARRENA. Gastua indarrean dagoen udal-aurrekontuko 943.734.000 partidaren kargura xedatzea, "kontzejuentzako inbertsio-dirulaguntza" kontzeptuan. Dirulaguntza horren esleipena 175.000 eurokoa da 2024 ekitaldirako.

BOSGARRENA. Erabaki hau erakunde eskatzaileei jakinaraztea eta dagozkion errekurtsoen berri ematea.

SEIGARRENA. Emandako dirulaguntzei buruzko informazioa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalera bidaltzea, dirulaguntza eman eta hurrengo hilabete naturala amaitu baino lehen.

I. ERANSKINA

ADMINISTRAZIO BATZARRAK	ESKATUTAKO OBRAK	OBRA MOTA		BESTELAKO DIRULAGUNTZAK	DIRULAGUNTZAREN PROPOSAMENA
GUZTIRA	0,00 €		369.217,38 €	64.432,29 €	172.849,62 €
ACOSTA/OKOIZTA 1	Okoiztatik S. Pedroko baserrietarako (Suchares) partzelabidearen zoladura amaitzea	4	34.986,02 €	22.745,80 €	12.240,22 €





ACOSTA/OKOIZTA 2	Euri-urak bideratzeko saretoa instalatzea	1	2.976,60 €	0,00 €	2.083,62 €
ACOSTA/OKOIZTA 4	Kirol-kantxan hiri-altzariak instalatzea	3	2.268,75 €	0,00 €	1.134,38 €
BURUAGA 1	Buruagatik Eribera doan bidea konpontzea	4	84.641,92 €	0,00 €	33.856,77 €
ERIBE 1	Eribetik Buruagara doan bidea konpontzea	4	37.324,66 €	0,00 €	14.929,86 €
ERIBE 2	Eribe-Buruaga-Berrikano-Gopegi bidegurutzean seinaleztapena, goragunea eta ispilua jartzea	1	10.276,89 €	0,00 €	7.193,83 €
MANURGA 1	Ikastolako komunak birmoldatzea	2	34.759,91 €	22.677,40 €	12.082,51 €
MANURGA 2	Santo Tomaseko aintzinako bidexka eta Tejerako bidexkaren zati bat berreskuratzea	1	6.380,00 €	0,00 €	4.466,00 €
MANURGA 3	Murubideko zubi zaharra zaharberritzea	2	15.948,62 €	0,00 €	9.569,17 €
MURUA 1	Zentro sozialari atxikita ataripe itxi bat eraikitzea	2	103.502,49 €	0,00 €	62.101,49 €
OLANO 1	Olanon seinaleztapena	1	1.845,25 €	0,00 €	1.291,68 €
ONDATEGI 1	Administrazio batzarraren jabetzako eraikinen fatxadak konpontzea eta muralak egitea [garia jasotzeko pabiloia eta ikuztegia]	2	7.623,00 €	0,00 €	4.573,80 €
ZESTAFE 1	018-007-106 bidea asfaltatzea	4	25.523,67 €	19.009,09 €	6.514,58 €
ZESTAFE 2	Hainbat gunetan bide-markak margotzea	1	1.159,60 €	0,00 €	811,72 €

II. ERANSKINA

ADMINISTRAZIO BATZARRA	OBRA	UKATZEKO ARRAZOIA
ACOSTA/OKOIZTA 3	Bideetako sastraka kentzea	Bideak mantentzeko lanak, hala nola sastrakak kentzea, diruz lagundu ezin diren obrak direla irizten da.
GOPEGI 1	Kultura-zentroaren estalkian eta aparkaleku publikoetan autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa egitea	Instalazio fotovoltaikoak kontzeju-ekipamenduek behar dutena baino askoz potentzia handiagoa du. Energia elektrikoaren ekoizpen horren azken xedea ez da Gopegiko kontzejua bera, eta, beraz, obraren xede ez da dauden kontzeju-eraikinen energia-efizientzia hobetzea, baizik eta beste erabilera eta helburu batzuk. Kontzejuei obretarako dirulaguntzak





		emateko oinarri arautzaileen arabera, azken horiek ezin dira finantzatu. Era berean, energia-komunitateak ez dira dirulaguntzen onuradunak, oinarriak arautzen dituen ordenantzaren 2. artikuluaen arabera.
GOPEGI 2	Bolatokiaren eta garbitegiaren estalkietan autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa egitea	Instalazio fotovoltaikoak kontzeju-ekipamenduek behar dutena baino askoz potentzia handiagoa du. Energia elektrikoaren ekoizpen horren azken xedea ez da Gopegiko kontzejua bera, eta, beraz, obraren xede ez da dauden kontzeju-erakinen energia-efizientzia hobetzea, baizik eta beste erabilera eta helburu batzuk. Kontzejuei obretarako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen arabera, azken horiek ezin dira finantzatu. Era berean, energia-komunitateak ez dira dirulaguntzen onuradunak, oinarriak arautzen dituen ordenantzaren 2. artikuluaen arabera.

476/2024 espedientea. 2/2024 Kreditu-transferentzia onesteko irizpena.

Aldekoa **Bozketa mota:** ohikoa/aho batez

Aztertu da indarrean dagoen udal-aurrekontuko gastuen egoera-orriko partiden arteko 2/2024 kreditu-transferentziei buruzko espedientea.

Aintzat hartu da, idazkari kontu-hartzaileak adierazi duenaren arabera, espedientea bat datorrela Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauaren 29. artikuluan eskatzen diren baldintzekin eta Aurrekontua Betearazteko Udal Arauan ezarritakoarekin.

Jarraian zerrendatzen diren kreditu-transferentziak onartu behar dira:

Gastuen egoera-orrian murriztu beharreko partidak:

Partida	Izena	Behin betiko kreditua	Zenbateko deuseztagarria
454.601.000	Inbertsioak bideetan	130.000	130.000

Kreditu-bajak guztira 130.000,00

Gastuen egoera-orrian gehitu beharreko partidak:

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza
454.210.000	Bideak konpontzea	86.000	130.000

Kreditu-gehikuntzak guztira 130.000,00

Kreditu-gehikuntzen guztizkoa egindako murrizketen guztizkoaren berdina da. Akordio betearazlea da, izapide gehiagorik egin behar izan gabe; hortaz, kontu-hartzailetzak aldatetak egingo ditu erakundearen aurrekontuko gastuen egoera-orrian, berehalako ondorioekin.





49/2024 espedientea. 2023. urteko Kontu Orokorra onesteko irizpena.

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa/aho batez

Aztertu da erakunde honen 2023ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra, eta Udalbatza honetako Kontuen Batzorde Bereziari jakinarazi zaio. Kontu Orokorra jendaurrean jarri da, eta jendaurreko epean ez da aurkeztu erreklamaziorik, oztoporik edota oharrik; beraz, Udalbatzak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA. Onestea erakunde honen 2023ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra.

BIGARRENA. Ondasunen Inbentarioa zuzentzea, Tokiko Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiak 31. artikuluan xedatutakoa betez".

HIRUGARRENA. Onetsitako Kontu Orokorra eta kontu hori osatzen duen dokumentazio guztia Kontu Auzitegiaren fiskalizazioari ematea, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 63.5 artikuluan ezartzen den bezala.

Udalbatza osatzen duten 8 zinegotziak bertaratu ziren bilkura horretara.

332/2024 espedientea. Etxabarri Ibiñako SAUI-3 sektorean bidearen izena behin betiko onesteko irizpena.

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa/aho batez

2023ko irailaren 26an, 417 zenbakidun alkatetzaren ebazpenaren bidez, Etxabarri Ibiñako lurzoru urbanizagarri industrialeko SAUI-3 sektorearen urbanizazio-proiektua behin betiko onetsi zen. Proiektua ZIGOITIA LOGISTICS SL enpresak sustatu zuen eta Javier González Ágreda arkitekto jaunak idatzi zuen. Eta 2023ko urriaren 9an, onespena 119 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen.

2023ko urtarrilaren 30ean, MAGNA GENERAL CONTRACTORS SL merkataritza-enpresak obra handiko lizentzia eskatu zion Zigoitiko Udalari eta eskabidearekin oinarritzko proiektua atxiki zuen. Proiektua Arabako Industria Ingeniareren Elkargo Ofizialak ikus-onetsi zuen 2023ko urtarrilaren 30ean eta KREAN S.COOP. ingeniari-estudioko kide Jorge Domínguez Urcelay ingeniari industrial jaunak idatzi zuen. Proiektuaren xedea da bezero anitzeko plataforma logistikoko bat eraikitzea (jarduera zehatza zehaztu gabe) Etxabarri-Ibiñako SAUI-3 sektoreko erabilera logistikoko partzelan, hau da, 6. poligonoko 1351. katastro-partzela berrian.

2024ko apirilaren 11n, P3 ZIGOITIA PARK SLU merkataritza-enpresak eskatu zuen pabiloi-biltegiko obra handiaren espedientean (114/2023) interesdun gisa sartzea; izan ere, partzelaren egungo jabea dela jakinarazi zuen.

2024ko apirilaren 11n, P3 ZIGOITIA PARK SLU merkataritza-enpresak 6. poligonoko 1351. katastro-partzelaren poliziaren zenbakia eskatu zuen.

SAUI-3an kale bakarra dago, Zigoitiko 6. poligonoko 1351., 1352., 1353., 1354. eta 1355. katastro-partzelei zerbitzua ematen diena.

Izenaren bilaketa inspiratzeko xedearekin toponimoa ABADELAUETA Elkarte Etnografikoari kontsultatu zitzaion, eta erantzuna "Andaluziaga" izan zen.

Aztertu dira adierazitako aurrekariak eta Etxabarri Ibiñako SAUI-3ko kale bakarra





Andaluziaga kalea izendatzea proposatzen da. 6. poligonoko 1351. partzelaren poliziaren zenbakia 1 izango da.

Aztertu da 2024ko apirilaren 18an udal-arkitektoak egindako txostena.

Aztertu da 2024ko maiatzaren 30ean Idazkaritzak egindako txostena.

Aztertu da Udalbatzak 2024ko ekainaren 28an hartutako erabakia, aurrekarietan, kontuan hartuta izena lekuaren toponimoa dela, Andaluziaga kaletzat deskribatutako bide publikoaren izena hasieran onestea erabakitzen duena eta erabakia jendaurrean jartzeko agintzen duena, ALHAOn, Udaleko ediktu-taulan eta webgunean argitaratutako iragarki baten bidez.

Jendaurrean jartzeko epean ez da alegaziorik jaso, idazkariak 2024ko abuztuaren 23an sinatutako egiaztatgiaren arabera.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.g) artikuluan esleitutako eskumenen arabera, Udalbatzak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA. Behin betiko onestea aurrekarietan deskribatutako bide publikoaren izena, hau da, Andaluziaga kalea, hori baita lekuaren toponimoa.

BIGARRENA. Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan argitaratzea, orok jakin dezan.

HIRUGARRENA. Erabaki honen berri ematea Etxabarri Ibiñako Administrazio Batzarrari, P3 ZIGOITIA PARK SLUri, Udalerrian kolektibitatearentzat zerbitzuak [EIN, posta-zerbitzua, elektrizitate-konpainia, etab.] ematen dituzten erakunde, enpresa eta erakundeei eta gainerako interesdunei, dagozkion errekurtsoak adierazita.

Udaletxean eta musika-eskolan birgaitze energetikoko obrak finantzatzeko kreditu gehigarria onesteko proposamena

Aldekoa	Bozketa mota: Izenduna Alde: 4; aurka: 0; abstentzioak: 4
Aldekoak	JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV) CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA (EAJ- PNV) MAITE COBO BARCALA (EAJ- PNV) IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV)
Aurkakoak	-
Abstentzioak	AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU) XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU) MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU) MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA (EH BILDU)

Alkateak bozkatzeko aurkeztu du udaletxean eta musika-eskolan birgaitze energetikoko udal-obrak egiteko aurrekontu-aldaketari buruzko gaia gai-zerrendan sartzearen berrespena, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 eta 97.2 artikuluekin bat. Aho batez onartu da.

Alkate jaunak proposamena bozkatzeko aurkeztu du, eta gehiengoz onartu da. Honela dio hitzez hitz:





Udaletxearen eta musika-eskolaren udal-eraikinen birgaitze energetikorako obra-proiektuak egikaritzea premiazkoa denez (Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren Europako funtsen DUS 5000 programako dirulaguntzaren bidez finantzatutako proiektuak dira) eta epea mugatua denez, lehenbailehen izapidetu behar dira. Hori dela eta, ezin da hurrengo ekitaldira arte atzeratu, interes korporatiboei kalterik egin gabe.

Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauaren 34. artikulua eta Aurrekontua Betearazteko Udala Arauaren 13. artikulua arabera, Osoko Bilkuraren kreditu gehigarriaren 6/2024 espedientea irakurri da, indarrean dagoen udal-aurrekontuaren barruan kredituak aldatzeko izapidetua.

Aztertu dira idazkari kontu-hartzaileak egindako txostenak.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA. Onestea 6/2024 kreditu gehigarria emateari buruzko espedientea. Guztira 367.484,32 euro dira, eta honako hauek dira gastuen partidak eta horiek finantzatzeko baliabideak:

GASTUEN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEK OA
920.622.001	Udaletxeko birgaitze energetikoko obrak	110.000,00 €
333.622.001	Musika-eskolako birgaitze energetikoko eta egokitzapen funtzionaleko obrak	257.484,32 €
	GUZTIRA	367.484,32 €

SARREREN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
710.01	Ereini dirulaguntza musika-eskolaren barne-eraberritzerako	117.484,32€
870.01	Diruzaintzako soberakina gastu orokorretarako	250.000€
	SARREREN ALDAKETA GUZTIRA	367.484,32€

BIGARRENA. Espedientea jendaurrean jartzea, erreklamazioak 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutako modu eta epean aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA. Erabaki hau behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik egon ezean.

LAUGARRENA. Erreklamaziorik egonez gero, hilabeteko epean beste erabaki bat hartzea.

BOSGARRENA. Behin betiko erabakia argitaratzea arauk ezarritako moduan eta epean.

SEIGARRENA. Aldi berean, espedientearen kopia bat igortzea Arabako Foru Aldundira.

Udal-eraikinak garbitzeko kontratuaren aldaketari buruzko mozioa.

Aldekoa | **Bozketa mota:** ohikoa / aho batez

Alkate jaunak eskatu du udal-eraikinak garbitzeko kontratuaren aldaketa onestearen





gaia premiaz gai-zerrendan sartzeko.

Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, bere 38. artikuluan agintzen duenarekin bat etorritz, alkate jaunak bozketarako aurkeztu du gaia premiaz sartzeko. Aho batez onetsi da.

Alkate jaunak adierazi du beharrezkoa dela udal-eraikinak garbitzeko kontratua aldatzea. Izan ere, musika-eskolan ezin izango dituzte preskripzio teknikoen agirian ezarritako garbiketa-zerbitzuak eman eraikinaren birgaitze energetikoa egikaritzeko obrek irauten duten bitartean.

Alkate jaunak mozioa bozkatzeko aurkeztu du eta aho batez onetsi da. Honako hau dio hitzez hitz:

Aztertu da Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2023ko otsailaren 20an hartutako erabakia. Erabaki horren bidez, udal-eraikinak garbitzeko zerbitzuaren kontratua SAMSIC IBERIA, SLU enpresari adjudikatu zitzaion, 339.942,24 €-an (BEZa barne), 2 urteko aldirako, 2023ko martxoaren 21etik 2025eko martxoaren 21era.

Aztertu da Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2024ko urtarrilaren 31n hartutako erabakia. Erabaki horren bidez, musika-eskolaren eraikinaren birgaitze energetikoaren proiektua idazteko eta obrak egikaritzeko kontratua CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS, SA enpresari adjudikatu zitzaion.

Aztertu da musika-eskolaren eraikinaren birgaitze energetikoak praktikan eskatzen duela obrak iraun bitartean musika eskola itxita mantentzea. Obraren iraupena, hasiera batean, 7 hilabetekoa izango da, zuinketa egiaztatze eta hasteko akta izenpetzen denetik.

Hortaz, zerbitzuen kontratua aldatu behar da musika-eskolan garbiketa-zerbitzua ez emateko 2024ko urriaren 1etik obra amaitu eta eraikina berriz ere funtzionamenduan jarri bitartean. Zerbitzu horren zenbateko 780,30 €-koa da hilean (BEZa barne).

Aztertu da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 204. artikulua, administrazio-baldintza partikularren agirian aurreikusitako aldaketei dagokiona.

Aztertu da administrazio-baldintza partikularren agiriaren hogeita zazpigarren klausula, aurreikusitako kontratu-aldaketei buruzkoa. Honako hau dio hitzez hitz: "*Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 204. artikuluekin bat etorritz, berariaz aurreikusten da kontratua egikaritu bitartean objektuan aldaketak egiteko aukera, zehaztaperen hauen arabera:*

a) Inguruabarrak:

— Kontratuaren xede diren udal-eraikinetako batean gela batzuen edo guztien erabilera aldatzea.

— Kontratu honen xede ez diren udal-eraikin berriak erabiltzen hastea.

— Kontratu honen xede diren udal-eraikinetako bat erabiltzeari uztea.

b) Aurreikusitako aldaketen irismena:

— Garbiketa-lanak edo maiztasuna handitzea, txikitzea edo aldatzea, preskripzio teknikoen agirian aurreikusitakoari dagokionez.

— Kontratuaren xede diren garbiketa-zerbitzuak zabaltzea, udal-eraikin berriak erabiltzen hasi direlako.

— Kontratuaren xede diren garbiketa-zerbitzuak murriztea, preskripzio teknikoen agirian aurreikusitako udal-eraikin bat erabiltzeari utzi zaiolako.

c) Aldaketak kontratuaren prezioaren zein ehunekori eragin ahal dio gehienez: % 10."

Kasu honetan, musika-eskolaren eraikineko garbiketa-zerbitzuak murriztu egiten dira aurreikusitako birgaitze energetikoaren obrak ezinezkoa egiten baitu hori erabiltzea. Zerbitzu horren aurreikusitako zenbatekoa 5.462,10 €-koa da (BEZa barne), obraren hasierako iraupenari dagokiona (7 hilabetekoa izango da, zuinketa egiaztatze eta hasteko akta izenpetzen denetik) eta kontuan hartuta musika-eskolaren eraikinaren garbiketa-zerbitzuaren





hilabeteko zenbatekoa 780,30 €-koa dela (BEZa barne)). Hori dela eta, administrazio-baldintza partikularren agiriko hogeita zazpigarren klausularekin (aurreikusitako kontratu-aldaketei buruzkoa) bat eginez; kontratu-aldaketaren zenbatekoak ez du adjudikazioaren zenbatekoaren % 10a gainditzen, 33.994,22 € BEZa barne (339.942,24 €-ren % 10a).

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren arabera organo eskumenduna Udalbatza denez, aho batez, honako hau **ADOSTU DU:**

LEHENENGOA. Administrazio-baldintza partikularren agiriaren hogeita zazpigarren klausularekin (aurreikusitako kontratu-aldaketei buruzkoa) bat eginez, udal-eraikinen garbiketa-zerbitzuaren kontratuaren aldaketa onestea. Aldaketaren xedea da musika-eskolaren eraikinean garbiketa-zerbitzua emateari uztea, eraikin horren birgaitze energetikoaren obrak iraun bitartean itxita egongo delako, hau da 2024ko urriaren 1etik, obra amaitu eta eraikina berri ere funtzionamenduan jarri bitartean. Zerbitzu horrek hilabetean 780,30 €-ko (BEZa barne) kostua du.

BIGARRENA. Preskripzio teknikoan agirian, administrazio-baldintza partikularren agirian, eta adjudikatzaileak aurkeztutako eskaintza ekonomikoan edo kontratu-dokumentuetan ezarritako gainerako baldintzak eta betebeharrak ez aldatzea.

HIRUGARRENA. Ebazpen honen berri ematea enpresa adjudikaziodunari, SAMSIC IBERIA, SLri, dagozkion ondorioetarako.

LAUGARRENA. Kontratuaren aldaketa hau Euskadiko Kontratazio Plataformako kontratatzailearen profilean eta Kontratuen Euskal Erregistroan argitaratzea, dagozkion ondorioetarako.

485/2024 espedientea. CARLOS ITURRIOZ MALAINA jaunak Zigoitiko Udaleko zinegotzi karguari uko egitearen berri jasotzea.

Aldekoa

Bozketa mota: ohikoa / aho batez

Aztertu da EUSKAL ALDERDI JERTZALEA (EAJ-PNV) udal-taldeko CARLOS ITURRIOZ MALAINA zinegotziak 2024ko uztailaren 17an aurkeztutako idatzia. Idatzi horren bidez Udal honetako zinegotzi izaten jarraitzeari uko egin zion eta horretarako arrazoiak aurkeztu zituen.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ADOSTU DU:**

LEHENENGOA. CARLOS ITURRIOZ MALAINA jaunak (EUSKAL ALDERDI JERTZALEA (EAJ-PNV) udal-taldekoa) Zigoitiko Udaleko zinegotzi karguari uko egiteko aurkeztutako idazkiaren berri jasotzea.

ANA ORTIZ GONZÁLEZ andreak (EUSKAL ALDERDI JERTZALEA (EAJ-PNV) udal-taldekoa) Zigoitiko Udaleko zinegotzi karguari udal-idazkariaren aurrean egindako zinpeko adierazpenaren bidez uko egiteko aurkeztutako idazkiaren berri jasotzea.

BIGARRENA. Korporazio honetako zinegotzi-kargua hutsik geratzen dela deklaratzeko, uko egitearen ondorioz.

HIRUGARRENA. Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatzea dagokion kredentziala egin dezala EUSKAL ALDERDI JELTZALEAREN (EAJ-PNV) hautagai-zerrendako hurrengo pertsonaren alde, BEGOÑA GARCÍA LÓPEZ-en alde, hori guztia aipatutako hautagaitzaren hauteskunde-zerrendatik ondorioztatzen denaren arabera.

LAUGARRENA. BEGOÑA GARCÍA LÓPEZ andreaki era sinesgarrian Hauteskunde Batzorde Zentralak igorritako egiaztatzea, Toki-araubidearen araudiak ezarritako ondorioetarako, Udalbatza honek egiten duen Osoko Bilkuraren lehenengo bilkuran karguaz





jabetu ahal izateko.

2024ko otsaileko, martxoko, apirileko eta maiatzeko kontaketa-aktak

2024ko otsail, martxo, apiril eta maiatzeko gastu eta sarreraren aurrekontuaren eta kontaketa-akten gauzatze-egoeraren berri eman da, bai eta Diruzaintzako Kontuaren berri ere. Talde politikoetako ordezkari bakoitzari kopia bana eman zaio, azter dezan. Hona hemen emaitzak:

2024ko OTSAILEKO KONTAKETA

HASIERAKO IZAKINAK.....	3.702.948,23€
Aurrekontuko sarrerak.....	81.504,15€
Aurrekontutik kanpoko sarrerak.....	32.741,19€
Aurrekontuko ordainketak.....	199.931,00€
Aurrekontutik kanpoko ordainketak.....	50.726,38€
Sarrerak bueltatzeagatiko ordainketak.....	0,00€
IZAKINAK GUZTIRA.....	3.569.168,74€

2024ko MARTXOKO KONTAKETA

HASIERAKO IZAKINAK.....	3.569.168,74€
Aurrekontuko sarrerak.....	331.960,84€
Aurrekontutik kanpoko sarrerak.....	34.148,34€
Aurrekontuko ordainketak.....	384.961,19€
Aurrekontutik kanpoko ordainketak.....	3.909,46€
Sarrerak bueltatzeagatiko ordainketak.....	993,95€
IZAKINAK GUZTIRA.....	3.545.413,32€

2024ko APIRILEKO KONTAKETA

HASIERAKO IZAKINAK.....	3.545.413,32€
Aurrekontuko sarrerak.....	164.900,48€
Aurrekontutik kanpoko sarrerak.....	20.882,08€





Aurrekontuko ordainketak.....	657.721,80€
Aurrekontutik kanpoko ordainketak.....	7.476,39€
Sarrerak bueltatzeagatiko sarrerak.....	10.575,55€
IZAKINAK GUZTIRA.....	3.055.422,14€
2024ko MAIATZEKO KONTAKETA	
HASIERAKO IZAKINAK.....	3.055.422,14€
Aurrekontuko sarrerak.....	413.297,32€
Aurrekontutik kanpoko sarrerak.....	11.740,77€
Aurrekontuko ordainketak.....	203.497,30€
Aurrekontutik kanpoko ordainketak.....	26.522,66€
Sarrerak bueltatzeagatiko ordainketak.....	0,00€
IZAKINAK GUZTIRA.....	3.250.440,27€

337tik 394ra bitarteko dekretuen kontu ematea

2024-0338 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gorbeako harrobietarako sarrera-errepidean filmatzeko baimena emateko]

2024-0339 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, udal-antzokirako askotariko materiala hornitzeko kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0340 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zigoitiko VI. Pilota Saria antolatzeko zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0341 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko uztailaren 28an Aizkolaritza Lehiaketa eta herri kirolen erakusketa egiteko zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0342 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Ondategiko 2. poligonoko 915. partzelan dagoen Kontzeju Etxean ataripearen barruko banaketako trenkada kentzeko eta leihoa aldatzeko obra txikirako lizentzia emateko]

2024-0343 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2024-0344 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, ortu ekologikoak erabiltzea baimentzeko]

2024-0345 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gurutze Plazako garajejan udal-ibilgailuarentzat kargagailu elektrikoa instalatzeko kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0346 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Manurgako 2. poligonoko 819. partzelako]





Kontzeju Etxean zenbait berritze- eta egokitzapen-obrak emateko eta ukatzeko]

2024-0347 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2025eko obra txikietarako dirulaguntzen eskaera onesteko]

2024-0348 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gorpegiko 5. poligonoko 720. partzelan dagoen etxebizitzaren barrualdea egokitzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0349 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko kultura-, gizarte- eta kirol-jardueren antolamendua ordaintzeko dirulaguntzak emateko]

2024-0350 DEKRETUA: ezeztatua

2024-0351 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, Gorbeia Eskolan ZOME geodesikoa eta zurezko mahaia instalatzeko obra txikiaren kontratua adjudikatzeko]

2024-0352 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Bengolarra eraikina berritzeko obraren 26. ziurtagiria onesteko]

2024-0353 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxaguengo 4. poligonoko 85. partzelan kontagailu-kutxatilatik sukaldera eta komunera doan ura hornitzeko sarea ordeztzeko eta erretenak egiteko obra-lizentzia emateko]

2024-0354 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Larrinoako 3. poligonoko 2. eraikineko 2028. partzelan dagoen etxebizitzan panel fotovoltaikoak jartzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0355 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Murua udalerriko 3. poligonoko 2015. partzelan familia bakarreko etxebizitzan garajea ixteko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0356 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2024-0357 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, Zigoitiko bideak eta bidezidorrak garbitzeko eta sasiak garbitzeko, intereseko puntuetara sartzeko eta sakabanatutako baserrietara iristeko zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzekoa]

2024-0358 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Muruako 5. poligonoko 1152. partzelako familia bakarreko etxebizitza lehenengoz okupatzeko lizentzia emateko]

2024-0359 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, udaletxeko parkineko fokuak aldatzeko obraren kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0360 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zentro Soziokulturalaren eta EALZren eraikineko hozteko ponpa ordeztzeko zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0361 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zaitegi udalerrian hustubideen kanalak berritzeko obra-lizentzia emateko]

2024-0362 DEKRETUA: ezeztatua

2024-0363 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Berrikanoko 6. poligonoko 1128. partzelan geotermia instalatzeko lizentzia emateko]

2024-0364 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, Zigoitia Euskaraz 2024ren antolakuntza-gastuak onesteko]

2024-0365 DEKRETUA [Ebazpena, Gopegiko Bengolarra parkeko hiri-altzariak birmoldatzeko obraren kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0366 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako 6. poligonoko 737. partzelan sukaldia eta bainugela eraberritzeko eta hesiaren zati bat konpontzeko obra





txikiaren lizentzia emateko]

2024-0367 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretuak, udal-etxebizitzako maizterrari 2024ko zabor-tasaren likidazioa baliogabetzeko]

2024-0368 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Bengolarrako 27. ziurtagiria onesteko]

2024-0369 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, desgaitasuna duen pertsonari aparkatzeko txartela emateko]

2024-0370 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko Eguzki jaiari txosnak jartzea baimentzeko]

2024-0371 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024an peoiak kontratatuzko]

2024-0372 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko uztaileko nominak ordaintzea onartzeko]

2024-0373 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Murua udalerriko bideak konpontzeko obra txikiaren lizentzia emateko epeak eteteko]

2024-0374 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxaguengo Kale Nagusiko 3. zenbakian (5. poligonoko 405. partzela) dagoen etxebizitzaren mendebaldeko fatxada konpontzeko obra txikiaren lizentzia emateko epeak eteteko]

2024-0375 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, T/2024/18 kontabilitate-zerrendako ordainketak onesteko]

2024-0376 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Apodakako 1. poligonoko 702. partzelan familia bakarreko etxebizitza eraikitzeke obra handiaren lizentzia emateko]

2024-0377 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Manurga udalerriko Marubide zubia zaharbertzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0378 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Apodakako 1. poligonoko 660. partzelan familia bakarreko etxebizitza eraikitzeke obra handiaren lizentzia emateko]

2024-0379 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gopegiko 6. poligonoko 1046. Partzelan eraikitako familia bakarreko etxebizitza lehenengoz okupatzeko lizentzia emateko]

2024-0380 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako SAUI-3ko urbanizazio-proiektuaren aldaketa-eskaera zuzentzeko eskatzeko]

2024-0381 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Murabeko San Juan ermitako lan arkeologikoen kontratu txikia adjudikatzeko, II. fasea]

2024-0382 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako 6. poligonoko 1057. partzelan hirigintza-legezketasuna berrezartzeko espedientea hasteko, fatxadak lizentziarik gabe berritu direlako]

2024-0383 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, udaletxearen birgaitze energetikoaren obraren zuzendaritzaren espedientea eta lizitazioaren agiriak onesteko]

2024-0384 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretua, Muruako harrobietarako errepidea egokitzeko obraren kontratuaren lizitazioa onesteko]

2024-0385 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gopegi udalerriko 6. poligonoko 1227. partzela garbitzeko agintzeko]

2024-0386 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Ondategi udalerriko 2. poligonoko 912.





partzela garbitzeko agintzeko]

2024-0387 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Ondategiko 2. poligonoko 733. partzelan urbanizazio-obrak exekuzio subsidiarioaren aurretik zuzentzeko eskatzeko]

2024-0388 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zestafeko 5. poligonoko 9. partzelan hirigintza-legezketasuna berrezartzeko espedientea hasteko]

2024-0389 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, eraikitako igerilekua lehenengoz okupatzeko lizentzia emateko]

2024-0390 DEKRETUA [Alkatetzaren Dekretuak, 2024ko zabor-tasaren likidazioa baliogabetzeko]

2024-0391 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, musika-eskola zaharberritzeko obren zuzendaritza fakultatiboen zerbitzuen kontratuaren lizitazioa onesteko, 2. deialdia]

2024-0392 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) biltzeko errolda onesteko]

2024-0393 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko abuztuko nominak eta 2024ko urtarriletik uztaiera bitarteko atzerapenak ordaintzea onesteko]

2024-0394 DEKRETUA: Ezeztatua

Alkatetzaren txostenak

MURUAKO HARROBIETARA DOAN ERREPIDEA KONPONTZEA:

Alkate jaunak jakinarazi du Muruako harrobietara doan errepidearen zati bat konpontzeko obra lizitatu dela. Adierazi du bi eskaintza egin direla eta ASFALTIA enpresaren proposamenak irabazi duela asfaltozko metro karratu gehiago eskaini dituelako.

APODAKAN PARTZELA SALTZEA:

Alkate jaunak jakinarazi du Apodakako bizitegi-partzela saldu duela 152.000 €-ren truke. Irteerako prezioa 130.000 €-koa zen. Adierazi du 136.000 €-ko beste eskaintza bat egon dela.

ODOLA EMATEKO AUTOBUSA:

Alkate jaunak jakinarazi du odola emateko autobusa irailaren 23an egongo dela udaletxearen aurrealdean, 16:30etik 20:15era bitartean.

C) ESKAERAK ETA GALDERAK

Eskaerak eta galderak.

LANPOSTUEN BALIOZTATZEA:





Mikel Isasmendi Txurruka zinegotziak Zigoitiko Udaleko lanpostuak balioztatzeko izapidearen inguruan galdetu du.

Idazkariak erantzun du lan hori egin behar duen teknikariarekin lehen bilera bat egin duela eta adierazi du urri bukaerarako dokumentu guztiak prestatzea eta sindikatuak deitzea aurreikusten dutela. Adostu da balioztatzea Udalbatzari igortzea, aurretiazko azterketa egiteko.

EGUNEKO ARRETARAKO LANDAKO ZENTROA

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak Gorbeialdeko Kuadrillako gizarte-langileak Eguneko Arretarako Landa Zentroko langileen lanaldi erdiko dedikazioa handitzeko egindako eskaerari Udalak emandako erantzunari buruz galdetu du.

Alkate jaunak erantzun du eskaera, funtsean, txango batean gertatutako gertakari puntual batek eragin duela. Txango horretan, erabiltzaileetako bat desorientatu egin zen, eta ezin izan zuten aurkitu ordu batzuk igaro arte. Adierazi du Arabako Foru Aldundiari horren inguruan galdetu zaiola eta dedikazioa handitzeko finantzaketa handitzea ukatu duela. Halaber, adierazi du zentrorra joan zela eta ongizatearen sententzia jaso zuela, bai eta egungo langileek zerbitzua behar bezala ematen dutelako sententzia ere. Esan du zentroko langile eta erabiltzaileen arteko ratioa, antzeko beste zentro batzuekin alderatuta, ez dela baxua. Amaitzeko esan du, irteeretan eta txangoetan arretarako behar bereziak artatzeko, administrazio-baldintza partikularren agirian jarduera horiei erantzuteko kontratistak beste pertsona bat jartzeko baldintza sartu dela.

PODOLOGOA:

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak adineko pertsonen podologia-zerbitzuaren inguruan galdetu du.

Alkate jaunak erantzun du oraindik ez dutela profesionala aurkitu, eskaintza podologoek elkargo ofizialak argitaratu bazuen ere. Murgiera joaten den pertsona laster erretiratuko dela esan du.

MURUAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA, UDAL-ETXEBIZITZA TASATUAK SUSTATZEKO:

Xabier Nafarrete Cadiñanos zinegotziak udal-etxebizitza tasatuak sustatzea ahalbidetzeko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren izapidetze-egoerari buruz galdetu du.

Idazkariak esan du saiatuko direla hurrengo bilkurako gai-zerrendan herritarren parte-hartze programaren onspen-izapidea sartzeko.

ZENTRO SOZIOKULTURALEKO GELA BAT "ZIGOITIA BAI" ELKARTEAK ERABILTZEA:

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotzia kexatu da Udalak "Zigoitia Bai" elkarteari Zentro Soziokulturaleko espazio bat erabiltzeagatik 120 euro kobratu zizkiolako. Elkarreak Zigoitin Solariako parke fotovoltaikoak ezartzeko proiektuaren aurrean ingurumenaren eta paisaiaren aldeko herritarren mugimendua gidatzen du. Zinegotziak adierazi du ez dagoela ados.

Alkate jaunak erantzun du Zigoitiko elkarreak tasa horiek ordaintzeaz salbuetsita daudela, baina zentro soziokulturala itxita dagoenean ekitaldiren bat antolatu nahi badute, kasu honetan bezala, atezaintzako gastuak ordaindu behar dituzte. Azaldu du ordenantza fiskala udal-zerbitzuak erabiltzen dituzten elkarte eta pertsona guztiei tratu bera emateko idatzi eta onetsi zela, eta bere edukia bete behar dela.





BENGOLARRAKO BIRGAITZE-OBRAK:

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak Bengolarra guneko birgaitze-obren egoeraren inguruan galdetu du. Alkate jaunak erantzun du oraindik azken akaberak eta urbanizazioaren zati bat geratzen direla. Obrak urte amaierarako amaitzea espero du.

Idazkaritzaren eginbidea:

2024ko urriaren 28ko ohiko osoko bilkuran, alkate jaunak galdetu du Udalbatzako kideren batek oharrik egin nahi dion 2024ko irailaren 20ko aktari. Akta deialdiarekin batera banatu zen.

Inork ez du oharrik egin, eta, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 91.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, akta onetsi da.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

